

## Haurrak onartzeko irizpideetan eragin dugu eta Lan hitzarmenaren mahai parekidea bildu da



Lan handia geratzen zaigu aurretik eta LABetik lanean jarraituko dugu hurrengo urteetako matrikulazio arauetan eragiten jarraitzeko.

Bestalde, 2025eko otsailaren 10ean LABek aldebakarrez sinatutako Lan Hitzarmen berriaren V. Kapituluaren indarrean dagoela gogorazi nahi dizuegu eta 34.artikuluaren gainean zuzenketa batzuk egin behar ziren eta hauek zuzentzeko akordioa sinatu dugu.

### 2025-2026 ikasturterako haurren onartze arauak

Martxoaren 18an Haurreskolak Partzuergoak 2025-2026 ikasturterako haurren izen ematealdiaren berri eman zuen eta honekin batera, onartze arau berriak. Gogoratu nahi dugu, beste eragile batzuekin eta familiekin batera egindako urteetako borrokaren ostean lortutako doakotasuna ezarri zela. Honekin batera, hainbat erabaki hartu zituen Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza batzordeak alde bakarrez.

LABetik, ordea, geroztik urtero-urtero onartze arauetan eragiten saiatu gara. Haurreskolak Partzuergo publikoaren doakotasuna balioan jarriz eta honen unibertsaltasunaren bidean urratsak eman daitezten. Honi jarraituz, urtarrilean Zuzendaritza batzordeari, langileak entzun eta gero onartze arauen inguruko eskaera erregistratu genuen:

- Haurreskola txikietan ordutegiari dagokionez ezartzen diren mugak berraztertzea, lana eta famili bizitza uztartzeko haurreskola txikietako familiek handietako familien aukera berdinak izan ditzaten.

- Sarrera eta irteera ordutegiak berraztertzea hauek egunerokotasunean duten eragin negatiboa dela eta.
- 2023-2024 ikasturtean froga piloto gisa aurkeztu ziguten arratsaldeko zerbitzua bertan behera uztea, ordutegiaren inguruko hauskarketa eskatuz.
- Familiei Haurreskoletan izena emateko eskatzen zaien dokumentazioa murriztea.
- Gizarte zerbitzuek bideratutako matrikula eskaerak epe kanpo onartzea.
- Haurrei 16 asteak betetzen dituzten hilabeteen zehar hasteko aukera ematea, betiere 16 asteak beteta dituztela.
- Matrikulazio epea jai edo opor egunetan ematen bada hau aldatu edo luzatzea.
- Hizkuntzak familiekin harremantzeko sortzen dituen mugak gainditze aldera, matrikulazio aldietarako espreski gida bat sortzea hizkuntza desberdinetan.
- Haurreskolaz aldatzen diren haurrak egokitzapena egitea.

2025-2026 ikasturterako onartze arauetan aurrera urrats batzuk ikusi ditugu, LABetik egindako ekarpen batzuk jaso baitira. Egun osoko ordutegia egin ahal izateko adibidez, hiru familiek eskatzearen araua kendu dute, arratsaldeko zerbitzua ez da eskainiko, haur zaintzagatiko eszedentzian egoteagatik dirulaguntza jasotzen duten familiek izena eman ahalko dute, legezko tutoreek gurasotasun baimena bukatzeko gehienezko asteak 4tik 5era luzatu dituzte, gizarte zerbitzuetatik bideratutako familien matrikulak epe kanpo onartuko dira, hurrei baja emateko 15 eguneko aurreabisutik 7 egunetara jaitsi dute....

Hala ere, oraindik lan handia geratzen zaigu aurretik eta LABetik lanean jarraituko dugu hurrengo urteetako matrikulazio arauetan eragiten jarraitzeko.

## Haurreskolak Partzuergoko mahai parekidea

2025eko otsailaren 10ean LABek aldebakarrez sinatutako Lan Hitzarmen berriaren V. Kapituluaren indarrean dago, 34. artikulua gainean zuzenketak batzuk egin behar ziren eta hauek zuzentzeko akordioa sinatu dugu. Atxikituta akordioa bidaltzen dizuegu.

Bestalde, Plantilak esleitzeko irizpideen akordioaren gainean lanean jarraitzen dugu. Lan kargak arindu eta irailaren 1etik indarrean sartuko den lanaldia gauzatzeko eta hitzarmenean zehaztutako ratioak hobetzeko proposamena lantzen ari gara.

Gogoratu nahi dugu, beste behin ere, Lan Hitzarmenaren negoziazioaren baitan 2024ko apirilean sinatutako akordioari esker 63 lanpostu berri txertatuko direla Lanpostuen Zerrendan, 2024ko urtarrilean eta 2025eko urtarrilean

errepikatutako Produkzio arrazoiengatik kontratuak estrukturaltzat hartzen direlako. Hauek irailetik hornituko dira, kalitatezko enplegua sortzeko ezinbestekoa izanik akordioa.

2025ean Hezitzaile finkoen lekualdatzea burutzea eskatu dugu eta 2025eko abenduan, sinatutako enplegua egonkortzeko neurriei jarraituz, LEP deialdi berria argitaratu behar da.

2025eko irailaren 1ean martxan jarriko den ordezkoen aplikazioari dagokionez, ikasturte hau bukatu aurretik froga piloto bat egiteko eskatu dugu. Horrez gain, LABetik martxan jarri aurretik hautagaiek haien zonalde eta jardunak aldatzeko epe bat irekitzea eskatu dugu.

Bukatzeko, 2024-2025 ikasturtearen hirugarren hiruhilabetearen ekingo diogu kudeaketa arloko barne sustapenen araudia, ordezkapenen kasuistikak eta ordezkoen araudiaren negoziazioari, prozesu hauek guztiak gardenak eta duinak izan daitezten.